2023/07/27an EGINDAKO OHIKO UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 27/07/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Puri Regidor Varela
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko uztailaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela, eta goian aipatutakoak bertan direla, bildu da Udalbatza ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 27 de julio de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2023-06-27 eta 2023-07-20.

## 2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

- 2023ko uztailaren 18ra arte hartutako erabakien berri eman da.
- Berariaz, ondorengo erabakien berri eman da:

Batzorde informatzaileen lehendakaritza eskuordetzea.

***ALKATEAREN ERABAKIA***

***ZENBAKIA:*** *1083*
***GAIA:*** *2023-2027*
***ESPEDIENTEA:*** *2023IUDE0001*
***INTERESDUNA:*** *ESKORIATZAKO UDALA*

*2023ko ekainaren 27an eginiko osoko bilkuran 2023-2027 agintaldirako batzorde informatzaileak eta horien izenak onartu ditu Udalbatzarrak.*

*Batzorde informatzaileen lehendakaritza Alkatetza honen eskumena den arren, zenbait batzordetako lehendakaritza udalbatzarkide batzuengan eskuordetzea nahi da batzorde horien funtzionamendua arinagoa izan dadin. Eskuordetza apirilaren 21eko 11/1999 Legearen bitartez Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.c) artikuluari emandako erredakzioaren arabera egingo da.*

*Ikusita Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 44. artikuluan jasotakoa, Alkate naizen honek honako hau*

***ERABAKI DUT***

*1.- 2023ko ekainaren 27an osoko bilkuran sortutako zenbait batzorde informatzaileren lehendakaritzak eskuordetzea ondoren aipatzen diren udalbatzarkideei:*

- *LURRALDE eta GARAPEN EKONOMIKO JASANGARRIA BATZORDE INFORMATZAILEA: ez da eskuordetzen*
- *ANTOLAKETA ETA OGASUN BATZORDE INFORMATZAILEA: Alaitz Orueta Arrese*
- *GIZARTE ZERBITZUAK ETA KIROLA BATZORDE INFORMATZAILEA: Dorleta Sologaistoa Agiriano*
- *KULTURA, EUSKARA, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA BATZORDE INFORMATZAILEA: Edorta Barandiaran García*

*2. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

*3. Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea.*

Zenbait zerbitzuren zuzendaritza eta kudeaketa eskuordetzea.

***ALKATEAREN ERABAKIA***

***ZENBAKIA:*** *1084*

***GAIA:*** ***UDAL ZINEGOTZIEI BATZORDEAK KUDEATZEKO ESKUORDETZA BEREZIA EMATEA***

***ESPEDIENTEA:*** *2023IUDE0001*

***INTERESDUNA:*** *ESKORIATZAKO UDALA*

*Eskoriatzako Udalak 2023ko ekaiaren 27an egindako Osoko Bilkuran udalaren organigrama osatuko duten batzorde informatzaileak sortzea eta eratzea erabaki zuen. Batzorde bakoitza zerbitzu ezberdinez osatuta dago, eta zerbitzu horien egitekoak ere Osoko Bilkura horretan zehaztu ziren. Zerbitzu horietako batzuk behar bezala funtziona dezaten, horien zuzendaritza eta kudeaketa Udaleko zinegotzien esku uztea beharrezkoa dela ikusi da.*

*Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduaren 43. ataleko 4 eta 5b) azpiatalek arautzen dituzten ahalmenen arabera, Alkate naizen honek honako hau*

*ERABAKI DUT*

*1.- Behean aipatzen diren zinegotziei bertan adierazitako zerbitzuen zuzendaritza eta kudeaketa eskuordetzan ematea. Zinegotzi horiek, baina, ez dute hirugarrenengan eragiten duten ekintza administratiboetan erabakitzeko ahalmenik.*

- *HIRIGINTZA /OBRA ETA ZERBITZUAK/ELIZATEAK/MUGIKORTASUNA: ez da eskuordetzen*
- *INGURUMENA/TURISMOA/ JASANGARRI ENERGETIKOA: Mikel Luengo Gabarain*
- *JARDUERA EKONOMIKOA/ MERKATARITZA: Xabier uriarte Iñurraegi*
- *PERTSONALA/OGASUNA /KONTUEN BATZORDE BEREZIA: Alaitz Orueta Arrese*
- *ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA/H@ZI/UDALTZAINGOA/ZERBITZU INFORMATIKOAK: ez da eskuordetzen*
- *GIZARTE ZERBITZUAK/PREBENTZIOA/BERDINTASUNA/OSASUNA: Dorleta Sologaistoa Agiriano*
- *KIROLA: Mikel Luengo Gabarain*
- *KULTURA/JAIAK: Edorta Barandiaran Garcia*
- *HEZKUNTZA/GAZTERIA: Irati Iglesias Pozo*
- *EUSKARA/ KOMUNIKAZIOA/ PARTE HARTZEA: Xabier Uriarte Iñurrategi*

*2.- Izendapen horien ondorioz hirugarrenengan eragingo duten ekintza administratiboak erabaki ezin badira ere, zinegotzi bakoitzak bere ardurapeko zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketaren ardura izango du, ondorengo betebeharrez gain:*

*a)- Zerbitzuak behar bezala funtziona dezala zaintzea.*
*b)- Zerbitzua zuzendu, bultzatu eta ikertzeko beharrezko aholkularitza teknikoa eskatzea.*
*c)- Zerbitzuko gaien berri arloko batzordeburuari ematea.*

*3.- Erabaki hau dagokien zinegotziei jakinaraztea; gainera Udalbatzari ere jakinaraztea eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

*4.- Erabaki honek sinatze dataren biharamunetik aurrera izango du indarra.*

Koordinazio batzordea eta lan taldeak eratzea.

***ALKATEAREN ERABAKIA***

***ZENBAKIA:*** *1111*

***GAIA:*** *2023-2027 KOORDINAZIO ETA LAN TALDEAK*

***ESPEDIENTEA:*** *2023IUDE0001*

***INTERESDUNA:*** *ESKORIATZAKO UDALA*

*2021eko irailaren 17ko 1210. zenbakiko Alkate erabakiz, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu ziren:*

> ***LEHENENGOA.-*** *Udal antolaketa egituraren barruan "KOORDINAZIO TALDEA" sortzea.*
>
> ***BIGARRENA.-*** *Lan arlo bakoitzerako talde bat sortzea:*
> *a. Antolakuntza*
> *b. Herritartasuna*
> *c. Lurraldea*

*Udalaren egungo arlo-antolamenduari eta barne-funtzionamendurako sistemari buruzko hausnarketa-prozesu baten ondoren, Alkatetza honek egokitzat jotzen du aipatutako "KOORDINAZIO TALDEA" zein lan taldeak mantentzea bai antolaketa horrek bai hura osatzen duten arloen edo sailen ohiko jarduerak ondorengo printzipioei erantzuten dietelako: eraginkortasun eta efizientzia, zeharkakotasuna, denboraren eta baliabideen arrazionalizazioa, gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta herritarren aurrean tokiko irudi politikoa hobetzea.*

*Udalerri bat osatzen duten elementuak hiru direla abiapuntutzat hartuta (herritarrak: giza elementua; lurraldea: espazio fisikoa; eta antolamendua), hiru arlo edo lan-eremu handi eratzen dira, eta horietan integratuko dira Udalaren egungo antolamendu-egitura osatzen duten arloak.*

*Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.a) artikuluak xedatutakoaren arabera, Alkatetzak du "udal-gobernua eta administrazioa zuzentzeko" eskumena.*

*Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.7 artikuluak aukera ematen dio alkateari, bere eskumen propioen esparruan, izaera orokorreko arau-xedapenak, dekretu edo jarraibide izenarekin, emateko antolaketa-arloan.*

*Horiek horrela, Alkate naizen honek honako hau*

*ERABAKI DUT*

***LEHENENGOA.-*** *Udal antolaketa egituraren barruan "KOORDINAZIO TALDEA" izeneko taldea mantentzea.*

***BIGARRENA.-*** *Lan arlo bakoitzerako lan talde bat mantentzea:*

*Antolakuntza*
*Herritartasuna*
*Lurraldea*

***HIRUGARRENA.-*** *KOORDINAZIO TALDEA ondorengo kideek osatuko dute:*

- *Alkateak.*
- *Idazkari-kontuhartzaileak.*
- *Ekonomia zerbitzuko teknikariak*
- *Lan taldeetako koordinatzaile teknikoek.*

***LAUGARRENA.-*** *Udalaren egungo egitura osatzen duten arloak honela elkartuta geldituko dira ondorengo lan talde bakoitzean:*

- *Herritartasuna: Gizarte zerbitzuak eta prebentzioa//Kultura, biblioteka eta kirolak// Euskara// Gazteria eta Hezkuntza.*
- *Lurraldea: Hirigintza//Obrak eta zerbitzuak//Ingurumena//Elizateak//Garapen ekonomikoa eta turismoa.*
- *Antolaketa: Pertsonala//Udaltzaingoa//H@ZI//Telematika zerbitzuak//Ekonomia eta Ondarea//Idazkaritza-kontuhartzailetza//Itzulpenak eta hizkuntza normalkuntza.*

***BOSGARRENA.-*** *Ondorengo lanpostuetako titularrei lantalde bakoitzeko koordinazio funtzioak izendatzea:*

- *Herritartasuna: MARI CARMEN ARRIETA ARMENDARIZ, euskara teknikaria.*
- *Lurraldea: MARIA PIA URRUTIA BEA, arkitekto teknikoa.*
- *Antolaketa: EKHI GALDOS MENDIA, informatikaria.*

*Lan talde bakoitzaren koordinazio politikoaren funtzioak ondorengo zinegotziei eskuordetzea:*

- *Herritartasuna: Dorleta Sologaistoa Agiriano*
- *Lurraldea: Ez da eskuordetzen*
- *Antolaketa: Alaitz Orueta Arrese*

***SEIGARRENA.-*** *KOORDINAZIO TALDEAK Udalaren kudeaketa administratiboa planifikatzeko, koordinatzeko, aholkatzeko, kontsultatzeko, proposatzeko, informatzeko eta ebaluatzeko funtzioak izango ditu. Hala ere, talde horrek ez du inola ere erabakitzeko eskumenik izango, ez berez ez beste udal-organo batzuek eskuordetzan emanda.*

*Zehazki, ondorengo funtzio espezifikoak izango ditu:*

- *Udal arlo orokorren xede diren gaien ohiko kudeaketa aztertzea.*
- *Hainbat arlotan komunak diren gaiak koordinatzea.*
- *Alkatetzari aholkuak ematea bere eskumenak erabiltzerakoan.*
- *Lortu beharreko helburuen izaera eta maila zehazteari buruzko informazioa ematea eta*

*proposamenak egitea Alkatetzari, bai eta helburuen lorpen-maila kontrolatzen laguntzea ere.*

- *Alkatetzak egokitzat jotzen dituen beste gai orokor batzuetan laguntzea.*

***ZAZPIGARRENA.-*** *KOORDINAZIO TALDEAREN saioen araubidea eta funtzionamenduko beste alderdi batzuk organoak berak ezarriko ditu, eta, osagarri gisa, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen legerian aurreikusitako kide anitzeko organoen funtzionamendu-araubidea aplikatuko da.*

***ZORTZIGARRENA.-*** *Lan arlo bakoitzeko lantaldeak honako hauek osatuko dituzte:*

*A.- Antolakuntza*
*Koordinatzaile politikoa: Alaitz Orueta Arrese*

*Koordinatzaile teknikoa (informatikaria): Ekhi Galdós*

*Idazkari-kontuhartzailea: Edurne Iturbe*

*Ekonomia zerbitzuko teknikaria: María Pilar Belategi*

*Kontuhartzailetzako teknikaria (pertsonal gaiak): Maripi Biain*

*H@Ziko koordinatzailea: Mari Carmen Ruano*

*Udaltzaingoa: udaltzainetako bat*

*B.- Herritartasuna*
*Koordinatzaile politikoa: Dorleta Sologaistoa Agiriano*

*Koordinatzaile teknikoa (euskara teknikaria): Mari Carmen Arrieta*

*Kultura teknikaria: Arantxa Unzueta*

*Gizarte langilea: Agurtzane Altube*

*Gazteria teknikaria: Maider Etxaniz*

*C.- Lurrraldea*

*Koordinatzaile politikoa: Edorta Zubizarreta Alegría*

*Koordinatzaile teknikoa (arkitekto teknikoa): María Pía Urrutia*

*Obra publikoetako ingeniari teknikoa: Aritz Urrutia*

*Obrak eta Zerbitzuetako ingeniari teknikoa: Elixabeth Jauregi*

*Ingurumen garapenerako teknikaria: Saioa Altzua*

*Toki garapenerako teknikaria: Nerea Arana*

***BEDERATZIGARRENA.-*** *Lantalde horien osaera zehatza gorabehera, bertan sartuko dira aztertuko den gaiaren arabera beharrezkotzat jotzen diren udal teknikariak.*

***HAMARGARRENA.-*** *Hiru taldeei dagokie lan-eremuko administrazio-kudeaketaren plangintza egitea, koordinatzea, aholkularitza ematea, kontsultei erantzutea, proposamenak egitea, informazioa ematea eta ebaluazioa egitea.*

*Zehazki, lantalde bakoitzak ondorengo funtzio espezifikoak izango ditu:*

- *Arloaren xede diren gaien ohiko kudeaketa aztertzea.*
- *Arloa osatzen duten administrazio-unitateetako gaiak koordinatzea.*
- *Lortu beharreko helburuen izaera eta maila zehazteari buruzko informazioa ematea eta proposamenak egitea Alkatetzari, bai eta helburuen lorpen-maila kontrolatzen laguntzea ere.*
- *Alkatetzak egokitzat jotzen dituen beste gai orokor batzuetan laguntzea.*
- *Arloaren kudeaketa txostena egitea.*

***HAMAIKAGARRENA.-*** *Lantaldeen saioen araubidea eta funtzionamenduko beste alderdi batzuk lantaldeek berek ezarriko dituzte, eta, osagarri gisa, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen legerian aurreikusitako kide anitzeko organoen funtzionamendu-araubidea aplikatuko da.*

***HAMABIGARRENA.-*** *Dekretu honen berri ematea Udalbatzarrari hurrengo ohiko bilkuran.*

Bertan dauden udalbatzarkide guztiak gelditu dira jakinaren gainean.

## 3.- JOSE ARANA PATRONATUKO FUNDAZIORAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan hautagaitza aurkeztu zuten lau alderdi politiko/koalizioetatik bik Jose Arana Patronatuko Fundaziorako ordezkariak izendatzeari uko egin diote (PSOE eta Elkarrekin Podemos).

Uko egite horren aurrean, eta Fundazioaren estatutuetako 8. artikuluan aurreikusitako D 'Hont Legearen formularen arabera, 7 udal-ordezkarietatik EH BILDUri bost proposatzea dagokio eta EAJ/PNVri bi.

EH BILDUk 5 pertsona proposatu ditu, eta horietako batek, Maria Jesus Fernandez de Arroyabek, eskatu du jasota gera dadila kargua independente gisa onartzen duela, eta ez alderdiari lotuta.

EAJ/PNVk, Josu Ezkurdia bozeramaileak adierazi duenez, oraindik ez du hautagairik, baina irraileko osoko bilkurarako bi pertsona aurkeztea espero du.

Horiek horrela, eta Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ondoren esango diren pertsonak Udal honen ordezkari izendatzea Jose Arana Patronatuko Fundazioan:

- EH BILDU taldeak proposatuta:

Aitor Zubizarreta Alegría
Miguel Angel Izurrategui Garro
María Jesús Fernández de Arroyabe Urcelay (independentea)
Ander Errarte del Pozo
Eluska Irauzu Hernández

- EAJ/PNV taldeak proposatuta: iraileko osoko bilkuran izendatzeko gelditu da.

## 4.- 2022 EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2022ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, Udalaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera, eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren aurrekontuaren kitapenak.

2023ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2023ko maiatzaren 29an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2022ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2023ko maiatzaren 16an egindako Kontu Batzorde Berezian hasiera batean onartu ondoren, eta 2023ko maiatzaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

## 5.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:05ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



ESKORIATZAKO UDALA idazkaritza kontuhartzailetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2023/09/29 11:28:04

## 1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fecha 27/06/2023 y en fecha 20/07/2023.

## 2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

- Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 18 de julio de 2023.
- Se da cuenta de forma expresa de las siguientes resoluciones:

Delegación de la Presidencia de las Comisiones Informativas:

***RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA***

***Nº:*** *1083*
***ASUNTO:*** *2023-2027*
***EXPEDIENTE:*** *2023IUDE0001*
***INTERESADO:*** *ESKORIATZAKO UDALA*

*Resultando que mediante acuerdo plenario de 27 de junio de 2023 se ha aprobado el número y denominación de las comisiones informativas para el período de mandato 2023-2027.*

*Considerando que, si bien la presidencia de las comisiones informativas es competencia de esta Alcaldía, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21.c) de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local, según redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, es propósito delegar dicha presidencia en varios Corporativos municipales con el fin de favorecer una mayor agilidad en el funcionamiento de tales comisiones.*

*Visto lo dispuesto en el artículo 21.3 de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local y en el artículo 44 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre:*

***HE RESUELTO***

*1.-Delegar la presidencia de determinadas comisiones informativas, creadas por acuerdo plenario de 27 de junio de 2023, en los corporativos que se relacionan a continuación:*

- *COMISIÓN INFORMATIVA DEL TERRITORIO Y DESARROLLO ECONÓMICO SOSTENIBLE: No se delega*
- *COMISIÓN INFORMATIVA DE ORGANIZACIÓN Y HACIENDA: Alaitz Orueta Arrese*
- *COMISIÓN INFORMATIVA DE SERVICIOS SOCIALES Y DEPORTE: Dorleta Sologaistoa Agiriano*
- *COMISIÓN INFORMATIVA DE CULTURA, EUSKERA, JUVENTUD Y EDUCACIÓN: Edorta Barandiarán García.*

*2. Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

*3. Dar cuenta de esta resolución al Pleno del Ayuntamiento.*

Delegación de la dirección y gestión de determinados servicios:

***ALKATEAREN ERABAKIA***

***ZENBAKIA:*** *1084*

***GAIA: UDAL ZINEGOTZIEI BATZORDEAK KUDEATZEKO ESKUORDETZA BEREZIA EMATEA***

***ESPEDIENTEA:*** *2023IUDE0001*

***INTERESDUNA:*** *ESKORIATZAKO UDALA*

*El Ayuntamiento de Eskoriatza, en sesión plenaria celebrada el 27 de junio de 2023, acordó la creación y constitución de las comisiones informativas que integrarán el organigrama municipal. Cada Comisión está compuesta por diferentes servicios, cuyas funciones también se concretaron en dicho Pleno. Para el correcto funcionamiento de algunos de estos servicios se ha considerado necesario delegar la dirección y gestión de los mismos en los concejales del Ayuntamiento.*

*En virtud de las facultades que se regulan en los subapartados 4 y 5b) del artículo 43 del Reglamento aprobado por el Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre,*

*HE RESUELTO*

*1.- Delegar en los concejales abajo citados la dirección y la gestión de determinados servicios. Dichos concejales, en cambio, no tienen competencia para dictar actos administrativos con efectos a terceros.*

- *URBANISMO/ OBRAS Y SERVICIOS/ ANTEIGLESIAS/ MOVILIDAD: No se delega*
- *MEDIO AMBIENTE/ TURISMO/ SOSTENIBILIDAD ENERGÉTICA: Mikel Aingeru Luengo Gabarain*
- *DESARROLLO ECONÓMICO/ COMERCIO: Xabier uriarte Iñurraegi*
- *PERSONAL/ HACIENDA/ COMISION ESPECIAL DE CUENTAS: Alaitz Orueta Arrese*
- *ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO/ H@ZI/ POLICIA MUNICIPAL/ SERVICIOS INFORMÁTIVOS: No se delega*
- *SERVICIOS SOCIALES/ PREVENCIÓN/ IGUALDAD/ SALUD: Dorleta Sologaistoa Agiriano*
- *DEPORTES: Mikel Aingeru Luengo Gabarain*
- *CULTURA/FESTEJOS: Edorta Barandiaran Garcia*
- *EDUCACION/ JUVENTUD: Irati Iglesias Pozo*
- *EUSKERA/ COMUNICACION/ PARTICIPACIÓN: Xabier Uriarte Iñurrategi*

*2.- Si bien a causa del nombramiento no tienen competencia para dictar actos administrativos con efectos a terceros, cada concejal tendrá la responsabilidad de dirigir y gestionar el servicio, además de realizar las siguientes tareas:*

*a)- Cuidar del buen funcionamiento del servicio.*

*b)- Solicitar asesoría técnica para dirigir e impulsar el servicio, así como para investigar.*
*c)- Ofrecer información sobre el servicio al presidente de la comisión.*

*3.- Notificar esta resolución a los concejales, así como al Pleno de la Corporación y de forma resumida al Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

*4.- Esta resolución entrará en vigor al día siguiente de la fecha en que se firme dicha resolución.*

Constitución de la Comisión de Coordinación y de los grupos de trabajo

***RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA***

***Nº:*** *111*
***ASUNTO:*** *COORDINACIÓN Y GRUPOS DE TRABAJO*
***EXPEDIENTE:***
***INTERESADO:*** *ESKORIATZAKO UDALA*

*Por Resolución de Alcaldía Nº 1210, de fecha 17 de setiembre de 2021, se adoptaron, entre otros, los siguientes acuerdos:*

***PRIMERO.-*** *Crear, dentro de la estructura organizativa municipal, un equipo de coordinación denominado "KOORDINAZIO TALDEA".*

***SEGUNDO.-*** *Crear un Equipo de Trabajo por cada ámbito :*

a. *Organización - Antolakuntza*
b. *Ciudadanía – Herritartasuna*
c. *Territorio - Lurraldea*

*Tras un proceso de reflexión en relación a la actual organización departamental y sistema de funcionamiento interno del Ayuntamiento, esta Alcaldía considera oportuno mantener el mencionado "KOORDINAZIO TALDEA" como los Equipos de Trabajo por entender que dicha organización como la actividad ordinaria de las áreas o departamentos que la conforman responden a principios de eficacia y eficiencia; transversalidad; racionalización del tiempo y los recursos; transparencia; participación ciudadana y mejora de la imagen política local ante la ciudadanía.*

*Partiendo de la premisa de que son tres los elementos integrantes de un Municipio (Ciudadanía :elemento humano; Territorio: espacio físico; y Organización) se configuran tres grandes áreas o ámbitos de trabajo y en las que se integrarán el conjunto de departamentos que conforman la actual estructura organizativa del Ayuntamiento.*

*Considerando que conforme a lo dispuesto en el art. 21.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local la Alcaldía ostenta la atribución de "dirigir el gobierno y la administración municipal".*

*Considerando que el artículo 25.7 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, otorga al alcalde o alcaldesa, la posibilidad de dictar disposiciones normativas de carácter general, con la denominación de decretos o instrucciones, en materia organizativa dentro del ámbito de sus competencias propias, esta Alcaldía*

*R E S U E L V E*

***PRIMERO.-*** *MANTENER , dentro de la estructura organizativa municipal, un equipo de coordinación denominado "KOORDINAZIO TALDEA".*

***SEGUNDO.-*** *MANTENER un Equipo de Trabajo por cada ámbito :*
*Organización - Antolakuntza*
*Ciudadanía – Herritartasuna*
*Territorio - Lurraldea*

***TERCERO.-*** *KOORDINAZIO TALDEA estará compuesto por los siguientes miembros:*

- *Alcalde*
- *Secretaria -Interventora*
- *Técnica del área económica*
- *Coordinadores técnicos de los equipos de trabajo*
- *Coordinadores políticos de los equipos de trabajo*

***CUARTO.-*** *Los departamentos que conforman la actual estructura del Ayuntamiento quedarán agrupados de la siguiente manera en cada uno de los equipos de trabajo.*

- *Ciudadanía: Servicios sociales y prevención//Cultura, biblioteca y deportes// Euskera// Juventud y Educación*
- *Territorio: Urbanismo// Obras y servicios// Medio Ambiente//Anteiglesias//Desarrollo económico y turismo*
- *Organización: Personal // Policía Local// H@ZI// Servicios telemáticos// Economía y patrimonio// Secretaría-intervención// Traducción y Normalización Lingüística.*

***QUINTO.-*** *Asignar a los titulares de los siguientes puestos las funciones de coordinación de cada uno de los equipos de trabajo:*

- *Ciudadanía: MARI CARMEN ARRIETA ARMENDARIZ, técnica de euskera.*
- *Territorio: MARIA PIA URRUTIA BEA, arquitecta técnica.*
- *Organización: EKHI GALDOS MENDIA, informático.*

*Delegar en la/os siguientes concejala/es las funciones de coordinación política de cada uno de los equipos de trabajo:*

- *Ciudadanía: Dorleta Sologaistoa Agiriano*
- *Territorio: No se delega*
- *Organización: Alatiz Orueta Arrese*

***SEXTO.-*** *KOORDINAZIO TALDEA tendrá funciones de planificación, coordinación, asesoramiento, consulta, propuesta, información, y evaluación de la gestión administrativa del Ayuntamiento, sin que en ningún caso tenga competencias decisorias propias ni por delegación de otros órganos municipales.*

*Concretamente, se señalan las siguientes funciones específicas:*

- *Análisis de la gestión ordinaria de las materias objeto de las áreas genéricas municipales.*
- *Coordinación de las materias comunes a varias áreas.*
- *Asesoramiento a la Alcaldía en el ejercicio de sus competencias propias.*
- *Información y propuesta a la Alcaldía respecto de la definición de la naturaleza y grado de los objetivos a conseguir, así como colaboración en el control del grado de consecución de los objetivos.*
- *Colaboración en otras cuestiones generales que la Alcaldía considere oportunas.*

***SEPTIMO.-****El régimen de sesiones y otros aspectos de funcionamiento de KOORDINAZIO TALDEA serán establecidos por el propio órgano, aplicándose con carácter supletorio el régimen de funcionamiento de los órganos colegiados previsto en la legislación reguladora del procedimiento administrativo común.*
***OCTAVO.-*** *El Equipo de Trabajo de cada área estará compuestos por:*

*A.- Organización - Antolakuntza*
*Política coordinadora: Alaitz Orueta Arrese*

*Técnico coordinador (informático): Ekhi Galdós*

*Secretaria-Interventora: Edurne Iturbe*

*Técnica del área económica: María Pilar Belategi*

*Técnica de intervención (temas personal): Maripi Biain*

*Coordinadora de H@ZI: Mari Carmen Ruano*

*Policía Local: uno de los agentes*

*B.- Ciudadanía - Herritartasuna*
*Política coordinadora: Dorleta Sologaistos Agiriano*

*Técnica coordinadora ( técnica de euskera): Mari Carmen Arrieta*

*Tecnica de cultura: Arantxa Unzueta*

*Trabajadora Social: Agurtzane Altube*

*Técnica de Juventud: Maider Etxaniz*

*C.- Territorio – Lurrraldea*

*Político coordinador: El Alclade*

*Técnica coordinadora (arquitecta técnica): María Pía Urrutia*

*Ingeniero Técnico de Obras Públicas: Aritz Urrutia*

*Ingeniera Técnica de Obras y Servicios: Elixabeth Jauregi*

*Técnica de desarrollo ambiental: Saioa Altzua*

*Técnica de desarrollo local: Nerea Arana*

***NOVENO.-*** *Con independencia de la composición concreta de dichos Equipos de Trabajo , se integrarán en ellos aquéllos/as técnicos/as del Ayuntamiento que se estime necesario en razón de la materia que vaya a ser analizada.*

***DECIMO.-*** *Corresponde a los tres Equipos, funciones de planificación, coordinación, asesoramiento, consulta, propuesta, información y evaluación de la gestión administrativa del ámbito de trabajo.*

*Concretamente, se señalan las siguientes funciones específicas de cada Equipo:*

- *Análisis de la gestión ordinaria de las materias objeto del ámbito.*
- *Coordinar las materias de las diferentes unidades administrativas que conforman el ámbito.*
- *Informar y proponer a la Alcaldía respecto de la definición de la naturaleza y grado de los objetivos a conseguir, así como colaborar en el control del grado de consecución de los objetivos.*
- *Colaborar en otras cuestiones que la Alcaldía considere oportunas.*
- *Elaborar el informe de gestión del ámbito.*

***UNDECIMO.-*** *Su régimen de sesiones y otros aspectos de funcionamiento serán establecidos por los propios equipos, aplicándose con carácter supletorio el régimen de funcionamiento de los órganos colegiados previsto en la legislación reguladora del procedimiento administrativo común.*

***DUODECIMO.-*** *Dar cuenta de este Decreto al Pleno del Ayuntamiento en la siguiente sesión ordinaria*

Todos los corporativos presentes se dan por informados.

## 3.- NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES DEL AYUNTAMIENTO EN LA FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA.

Resultando que de los cuatro partidos políticos- coaliciones que presentaron candidatura en la elecciones locales del pasado 28 de mayo de 2023, dos han presentado renuncia expresa a designar representante en la Fundación Patronato José Arana (PSOE y Elkarrekin Podemos).

Resultando que ante dicha renuncia, y según la fórmula de la Ley D´Hont prevista en el artículo 8 de los Estatutos de la Fundación, de los 7 representantes municipales correspondería a EH BILDU proponer a cinco y a EAJ/PNV a dos.

Por parte de EH BILDU se han propuestos 5 personas, de las cuales una, Maria Jesús Fernández de Arroyabe, ha pedido que conste que acepta el cargo como independiente y no como vinculada al partido.

EAJ/PNV, según manifiesta su portavoz Josu Ezkurdia, todavía no dispone de candidatos , si bien se espera que para el pleno de setiembre puedan aportar dos nombres.

Con base a cuanto antecede y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda y el voto favorable de los 7 corporativos presente de EH BILDU y la abstención de los 4 corporativos presentes de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Designar a las personas que a continuación se relacionará representantes de este Ayuntamiento en la Fundación Patronato José Arana:

- A propuesta del grupo EH BILDU:

Aitor Zubizarreta Alegría
Miguel Angel Izurrategui Garro
María Jesús Fernández de Arroyabe Urcelay (independiente)
Ander Errarte del Pozo
Eluska Irauzu Hernández

- A propuesta del grupo EAJ/PNV: Queda pendiente para el pleno de setiembre.

## 4.- APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DEL EJERCICIO 2022.

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2022, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación, junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento.

En sesión de fecha 16 de mayo de 2023 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 29 de mayo de 2023 , fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

Con base a cuanto antecede, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda , el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

“Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2022, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 16 de mayo de 2023 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 29 de mayo de 2023, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado.”

## 5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:05 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**